

TXILLARDEGIren SARRERA HITZALDIA

BAIONAN, 1987eko AZAROAREN 2an

Ez dakit nork erran zuen nitaz, duela urte batzu, bai heziketaz bai bizieraz, Hegoaldeko semea bezain Iparraldekoa naizela. Egia balitz bederen!... Eta bikoiztasun hori niretzat oharagarri izanik, pozarren onartu nuen egun eta hemen sarrera-hitzaldi hau emateko parada; herriero ere zuokin (mugaz honanzkookin, alegia) elkartzurik agertzeko ere eskaini baitzidan.

(...)
"Mugari tiro" esaldi hori egia bilakarazten saiatu naiz, hitz batez. U.E.U.ak haseratik egin zuen bezala. Zeren-eta gogoratu beharrik ba al dago gure historia?

(Ikus aurreko idatzialak).
(...)
U.E.U. hau, beraz, ipartarra da osoki: gurasoz eta sorlekuz. Berritri saio hauek hemen egitea ez da "esportazio" modu bat, "retour aux sources" hutsa baizik.

Universidad del País Vasco — Euskal Herriko Unibertsitatea delakoa sortu zen gero, ofizialki, Vascongadetan, "Mendebal-Euskadin" hobeiki errateko; eta "Opus Dei" delakoak "Ekialde-Euskadin" daukanaz gain, aurki sortuko bide da Nafarroan U.P.V.aren kide ofiziala. Badakizu: Hegoaldea betu bi partetan, bitan gutienik, sekula ez baturik...

Eta U.E.U. honetan ari garen gehienok U.P.V.ko irakasle "ofizialak" garelarik, galdera ez da luzatu: zertarako, beraz, U.E.U.? Francoren garaian jaioa, ez ote zuen Francorekin batera hili behar? Zein da bere betekizuna egungo egunean? Hobeiki errateko: ba al du oraindik betekizunik?

Horren erantzuteko, irakur ditagun Uztaritzeko hirugarren U.E.U.aren, 1975an, onartu zen Manifestuaren pasarte batzu:

"Euskal Herriko Unibertsitateak euskal gizartearen ukan behar du bere ardatzatz, euskal gizarteare osotasunean harturik... Euskal Unibertsitatea, Euskal Herria osatzen duten herrialde guztien arian behar du: Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Lapurdi, Zuberoa eta Nafarroa baina". U.P.V. delakoak betetzen al du xede nagusi hau? Ez.

Goazen aitzina Uztaritzeko Agirian barrena: "...Euskal Herriko Unibertsitateak euskaraz behar du ihardun nahi ta ez. Ezin onhar dezakegu hizkuntza-bitasunik, eta Euskal Herri osoa berreskalduntzea dugu gure xede". Betetzen al du U.P.V.ak beste helburu nagusi hau? Berritri ere: ez.

Ekin diezaiogun irakurrerari: "...Euskal Unibertsitateak Euskal Herriko jende guztia hartu behar du kontutan, ezelako diskriminaziorik gabe... Egun Ipar-

euskaldunak kanporatzea bortsatzen dituen egoeraren kontra burukatuz, eta Euskal Herri osoan, nola Hegoaldean hala Iparraldean, kapitalismo sistemari azpia jaten ahalaginduz". Klase balditzapenetatik al dago UPV delakoa? Ez.

Handik bi urtetara, Iruñeko Agirian, helburu hirukoitz berbera errepikatu genuen: "Unibertsitate nazionala, euskalduna eta herritarra". Eta hori mamitu gabe dagoeno, U.E.U. ak badu betekizunik: hain zuzen ere nora heldu behar dugun praktikan gogoraztea. U.E.U. ak orain, helmugatik urrun garelarik, bere burua isiltzea edo desegitea, erokeria litzateke.

Hots, U.E.U. ak ez dirurik, ez batimendurik, ez irakasle propiorik, ez oinarri juridiko garbirik... Nola izanen, gainera, hiru partetan zaiturik daukagun Euskal Herri triste honetan?

Baina "marjinaturik" ere, hasean hautatu genituen xede eder haiek ez ditugu saldu; eta ez salduko ere. Uztaritzen orain dela 12 urte onartu genituen ideia haiek txek bildu gaituzte egun Baionara. Baita bilduko ere ondoko urteetan egiazko Euskal Unibertsitatea, euskalduna, nazionala eta herritarra instituzio sendo bihurtu arte.

Zergatik? Geure ingurua begiratzen dugunean, beren burua altxa duten beste herri txikien kondaira irakurtzen dugunean, U.E.U. ren oinarri hirukoitz horri eutsi behar diogula garbi agertzen zaigulako.

Ez zaituzte nekatu nahi. Eta, beste askoren eraginean, eguno bilera honetarako hautatu ditudan lau Unibertsitatearen kasoa gogoraziko dizuet laburki: Helsinki, Gante, Pristina eta Tbilisi-koena.

Helsinki erranez (Helsingfors gure gazte denboran, suediar modura), Suomiko (Finlandiako suediar modura) Unibertsitate nagusia adierazi nahi dut. Suomi herrialde txikia da, jendaketaz bederen: 4 800 000 biztanle. Estatu leibiduna da: suomieraz mintzo dira gehienak (%94), suedieraz gutxiengo indartsua (%6).

Helsinki Unibertsitateak eragin ezin handiagoa izan du Suomi askatu eta suomidunaren eraikitzean. Suomiko "aita" den Snellman irakasleak, Helsinki Unibertsitatearen eroin zuzen, 1840-1860 urteetan Suomi berriaren mezuia; eta hantxe bildu zite. Eta, askoz ere beranduago, nazio askatasuna lortu ondoren, suediar gutxiengo indartsuak amore eman nahi ez zunean (1920-1940 urteetan, eman dezagun) Helsinki 7 000 ikasle abertzalek gidatu zuten nazio-hizkuntzaren aldeko bor-

roka latza: suediarzko katedren kopurua mugatuz (%10 bat geroztik), 1923an proposatuko "elebitasun" txepela gaitzetsiz, suediar errektoreari arraultzak ustelak aurkituz, 1943ko kurtsuon hizkuntza zela bide greba iraukorra eginez eta Unibertsitate osoa geldituz, hitzgei orokorrenazako hamaika ikasleak hitz ahantziak han hementika bilduz, Helsinkiako Parlamentua bera bil erazi eta bide sendo bat hautatzera bortsatuz, sindadurak ehun milaka bilduz. Suomi askatuak eta suomidunak erruz zor die, zinez, Helsinki ikasle eta irakasleak.

Eta, zer erranen Gante (eta gero Leuven) Unibertsitate famatuz? Mende honen haseran, Vlaanderen-go bi unibertsitate nagusiok (baita lurraldez flamenkoa den Brussel-go era, jakina) frantses hutesari ziren. Belgikako elitateak horrela frankofonoak ziren.

Hots, Ackers-ek 1889az geroztik garbiki ikusi zenez, Ganteko Unibertsitate flandretaraztea, "izan ala ez izan" mailako arazoa zen flamenkoiztatuz; flandretar abertzaleen ustez, "herri-nortasunaren eta nazio-kontzientziaren iturria" izan behar baituzten Vlaanderen-go Unibertsitate ofizialak.

30 urtez irau zuen borroka (Europako gurelarietako gertaerak barne) eta 1936an, sei urtez trantsizioan pasa ondoren, Ganteko Unibertsitateak nederlanderaz eskolatutako elitea, abertzaleen amets zaharra, egia bilakatu zen, "koadroak" eta maila guztietako buruzagiak bertako hizkuntzaren bultzatzaile bihurtuz.

Leuven-go Unibertsitatea ("Louvin" frantsesez) gelditzen zitzairen oraino, pribatua eta katolikoa bazen ere. Eta presioa gora joan zen. Hogeita-hamabi urte beranduago (hain zuzen ere, ni Belgikan bizi nintzen garaian), Leuven-en nederlanderaz hutesari da, frantses sailak Ottignies-ri aldatu derlarik. Erdibiketa mingarria izan zen, oso mingarria; baina flandretar abertzalek ez zuten amore eman Unibertsitatearen arazoan: Gante eta Leuven nederlanderaz hutesuz.

Eta Pristina-ko Unibertsitateaz, zer? Jugoslavia-ko Erresuma federatua, Kosovo dago: Serbia Errepublikak barruko eskualde autonomoa, 1 200 000 albaniar. Eskualde txiroa, atzeratua; Albania Askatutik muga politikoak berezita.

Askatasunaren aldeko mugi-mendua hazkorrean (nork ez du irakurri egin hauetako prentsan Kosovo-ko tentsio beldurgarriaz ezer?), albaniar guztiak ekartzera



Jose-Luiz Alvarez-Enparantza "Txillardegik" idazle eta irakaslea.

daraman mogimenduo horretan, leku bat gailen: Pristina-ko Unibertsitate. Hantxe erabaki zuten kosovo-tar intelektualek bertako hizkera maila aruntean utzi, eta standart-tzat Albaniakoa bera hautatzea (eskandaloa noski; Kosovo Jugoslavia baita, eta ez Albania...). "Kosovo, Errepublika" oihukatzen zuten Pristina-ko ikasleak 1948ko kale-inkontur larrietan: 11 hilik, ofizialki... Eta, zailtasun guztien gainetik, Pristina-ko Unibertsitatearen albaniar irakasleak mintzaira nagusia: ikasketak bi heren albanieraz, eta beste bat bakarrak serbo-kroazieraz ematen delarik. Kosovoren ere Unibertsitateak darama nazio-pizkundearen zuzia. Zeren-eta, nonbait irakurria duanez, Albanian erlijioa ez baita marxismo-leninismoa, Albania baizik.

Eta orain, bukatzeko, beste bi hitz Tbilisi (Tifliss) ko Unibertsitatearen kasoz. Georgiarrak, Kaukasoko Errepublikak federatua, hiru miloi terdi dira, gutxi gora behera (%23,8 armeniar, %7,4 erusiar, eta %68,8 georgiar/1979). Euskaldunak bezalatsu, baina beren sorterrian nagusi: georgiarrak oro mintzo dira georgieraz. Eta laurden batek (955 000-k azkeneko datuen arauerak) daki ongi erusieraz, eta kultur hizkuntza gisa erabiltzen. Zifra horiek eta gureak alderatzea oso argigarria izan daiteke.

Tbilisisko Unibertsitatean (Leninen garaian, 1918an, sortuan) 22 000 ikasle daude gaur (1975); eta ia dena "kartveleraz" (georgieraz) azaltzen da. Honen argigarri bat: liburu argitaraketa. 1980an 2 103 liburu argitaratu dira Georgian: 1 382 georgieraz, eta 564 erusieraz... Are hizkuntzalaritza hutsaren mailako artikulak ere, georgieraz egiten dira maiz: "Ibero Caucasica" aldizkari teknikoan, eta 1980an, 29 lan agertu ziren georgieraz, eta bakar bat erusieraz (Daghestan-go batek idatzia!). Ongi gaude gu geure "razo operativas" famatu horiekin...

Hots, hizkuntza nazionalaren eta kartveliar nortasunaren aldeko borroka etengabea, Tbilisisko Unibertsitatea agertu izan da gailen. Hodei beltz bat 1975az geroz-

tik: Doktorego Tesiak gaur egun erusieraz idatzi behar dira (Federazio osoan, eta ez Georgian bakarrik).

Beste mehatxu bat 1976az geroztik: gai batzu erusieraz azaltzea errazago litzatekeela-ta, erusiar irakasleak etortzen hasiko ote diren beldurra zabaldu da ("hasiko ote" hitzak har gogoa!). Eta tirabira nabarmenak agertu bide dira Unibertsitatean; nazio-nortasunaren sailean, Georgiarrak ez baitute aisa amore emango. Konstituzio berriaren nazio-hizkuntzaren gailentasa segurtaturik ikusi arte amore eman ez zuten bezala.

Kanpoko lau adibide horien bidez ikus dezakezue, guztiz betekizun funtsezkoak dagokio Euskal Unibertsitateari: bai nazio-kontzientziakuntzan, bai hizkuntzaren pizkundearen, bai klaseen mugen gainetik kulturaren hedakuntzan. Herrien zuperkuntzan Unibertsitatea izan da lanabes nagusia bazter guztietan.

Horregatik guk ez dugu Unibertsitate "apolitiko"rik nahi. Unibertsitate "apolitiko"rik ez dago, bertzalde. Geure nazio-berreskurketan aintzindaritza hartuko duen Unibertsitate abertzale eta herritar bat nahi dugu. U.P.V. ko iratxo saldu batek geure herriari eta gure hizkuntzari bizkarrak ematea proposatzen badigu ere, aurpegira tu egin, eta kultur Unibertsitate "harki"rik nahi ez dugula erantzun dugio.


Bere praxian, eta egundik bertetik, eta ez hitz alferretan bakarrik, "Mugari tiro" egiten dion Unibertsitate nazional bat nahi dugu; Ahuñemendiz bi aldeetan bat, eta bakarra, eta euskalduna. Eta neure indar guztiez zapimarratu nahi dut hau Baionako areto honetarik. Guk ez dugu irentsi, eta ez irentsi-ko, Nafarroa eta Iparraldea alde batera utziko dituen biderik; eta erdara Hezkuntza-buruzatik eta Errektorategitik isurtzen dugun aparatiorik ere ez. Taktikak eta jukurtiek beren muga dute.

Oraindik ere Euskal Herri osoan lan egin nahi duen U.E.U. apal baina irmo honi buruz urkatu agertzen diren pertsonen eta instituzioen buruz, zer erranen? Axularrek liokene bezala: "berak dira beren buruz aski klarki mintzo".

(...)

Txillardegik

Udako Euskal Unibertsitatea etorkizunari begira



Emilio Lopez-Adan

Azken urteotan, Iparraldeko UEUK lorpenak eta hutsak izan ditu; horren ikertzeak erakutsiko digu nondik jo behar den urrango ekitaldietan, UEUren xedeak gauzatzeko.

Didaktikan leku bat ardietsi du. Euskara, eta euskaraz, era-

kasten dutenak heldu dira gure kurtsuotara; berdin ikastoletatik, publikotik edo pribatutik. Eta, erran gabe doa, adar honek aintzina joko du.

Ala eta guztiz ere, UEUK betetzen du erakaskuntza ofizialak hutsik uzten duen zuloa. Euskal erakaskuntza antolatuzko, ez dugu Iparraldean edo Frantses Estatuan ziklo osoa ematen duen Unibertsitate, ez eta Eskola Normalk ere. Erakaskuntza dituzten beharrak, era orokor eta planifikatu batez bete beharko dira, botere publikoen diruz eta borondatez.

Bitartean, Euskal Unibertsitateak, orain arte bezala, erakaskuntza aintzinetik mintzaturik, espezialistak eta materialak ekarriko ditu, haien lan pedagogikoa laguntzeko.

Bainan didaktikan aski ongi heldu bada hemengo beharrik lotzeko, ezin gauza bera erran UEUren beste helburu nagusiei buruz. Haren bokazioa bikoitza da: gaiak hein unibertsitario batetan euskaraz tratatzea, eta herria ezagutzeko zientifiko eta unibertsitarioekin lot-

zea, gure naziojintzan biak elkarrekin ibil daitezten.

Herria eta Unibertsitatea uztartzeko, hitzaldiak, seminarioak, kurtsuak eta mahain inguruak antolatu ditugu. Unibertsitateko erakaskuntza, unibertsitate-kanpoko espezialistak, hala nola gure gizeartean gertatzen ari diren eginkizun garrantzitsuen jakileak eta protagonistak jinarazi ditugu; batera, jende guztiei zabaldu dizkiegu ateak, entzuztera eta parte hartzera etortzeko. Plazer handiaz entzun ditugu Junes Cazenave, Benoit Oiharzabal, Txillardegik edo Xarles Videgain, besteak beste; mahain-inguruetan, Frantses Iraultea, Ekialdeko alduakuntzak edo Euskararen erabilpena herri administrazioetan aipatu ditugu... Eta herriaren parte hartze eskasak mintu gaitu.

Hortaz mila gogoeta egin dugu.

Bainan Euskal Unibertsitatearen ildotik jarraitu behar, herria eta jakintza biltzeko, euskaraz egiten den ikerkuntzari esker.

Emilio Lopez Adan.

CORÉALISATION
INSTITUT CULTUREL BASQUE EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA
PARTAIDE